

# noaua

Santixabelak, ekainaren  
28tik uztailaren 2ra

Etxegabetzeen arazoa,  
konponbidean?

Truke plaza, igande  
honetan Txokoalden



**Euskarak har dezan arnas**

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*i l e a p a i n d e g i*

**mistoa**

**Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**antenas**  
**Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

**t d t**

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

1 VEO **custre** 5 **telemar** **etb** **DIGITAL+**  
2 SET-VEO **OH+** **FIP** **telemar 2** **etb** **teledonosti**  
4 **teledonosti** **elcino** **LaSexta** **neox** **7 la siete** **etb**  
**clab** **LaSexta** **telemar** **logof 10** **etb**

*Eskaintza bereziak!!! fruta prezio ezin hobean!!!  
Jatetxeentzat ere eskaerak onartuko dira*



**APIRILEAN USURBILEN GARAICO FRUTADENDA!!!**  
**BIZKARRE KALEA 1 (LURDES FRUTADENDA ZENA)**

## Albisteak iruditan

# Barazkiak, datorren Tipi-Tapako pintxoetan

**I**ruditan dituzue, Tipi-Tapa egitasmoan parte hartzen duten herriko bost tabernetako langileak, Txalaka saltoki aurrean erretratatuak. Apirilaren 7an, goiz eta eguerdi partean, dastatu ahal izango diren pintxo berezien ekimenaren bosgarren edizioa iragartzen. Etxeko barazkiak izango dira eta, datorren Tipi-Tapako protagonistak. Barazkiekin eginiko pintxo bereziak dastatzeko aukera egongo da, Txiribogan, Aitzagan, Bordatxon, Artzabalen eta Txapeldunen. Tabernariak euren sukaldeetan zer nolako mokaduak landu pentsatzen hasiak dira jada. Gogoan izan, pintxoia eta edatekoa 2 eurotan eskuratu ahal izango duzuela. Mokadua bakarrik, 1,5 euroren truke. Eta 14:30ean, Hurbilago elkarteko establezimenduetan xahutzeko 300 euroko erosketa-balea zozketatuko da Bordatxon.



Apirilaren 7an, barazki pintxoekin osatuko da Tipi Tapa ibilbidea.

## Laburrean

### Hurrengo bi asteetan, NOAUA!rik ez

Datozen bi asteetan, hau da, martxoaren 29an eta apirilaren 5ean ez da NOAUA!rik izango. Hurrengo zenbakia, apirilaren 12an argitaratuko dugu. Beraz, zorion agurririk edo oharririk baldin baduzue, erredakzioa@noaua.com helbiderra bidali edo egoitzara ekarri, apirilaren 8a baino lehen. NOAUA!ko egoitza itxita izango da Aste Santuan (martxoak 28-apirilak 1 artean).

### Gazte Danbadarako sarrerak salgai

Ernai gazte antolakunde berriaren sorrera jaialdia antolatu dute, martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean Urduñan. Gazte Danbadako sarrerak Aitzagan daude salgai. Eskualdetik autobusa irtengo da eta autobusean izena emateko zerrenda ere, Aitzagan jarri dute. Hotzikarak eta Sen taldeek hartuko dute parte. Hitzaldi, tailer, antzezlan eta ikusentzunezkoak ere izango dira.

### Perot lantegiko EEEa, bertan behera

Kaleratze gutunak jasotzeaz zituztenean, Huyck Wangner enpresakoek bertan behera utzi zuten Zizurkilgo Perot lantegian indarrean jarritako EEEa. Aipatu planta ixtera eta langileak kaleratzera zihozazen. Orain ordea, erretiratu egin dute espedientea. Langileek halere, bi usurbildar tartean, ez dakite zein ote den aurrera begira enpresak dituen asmoak.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Bea Alda,  
publizitatea@noaua.com.

**Diseinu berria:** Erroitx S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzioa@noaua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Nerea Zinkunegi

## Oria Ibaia–Inventarium (Alkandora galdu baten bila)

(Idatzi hau Bernardo Atxagak 1987an musika eta literatura uztartuz grabatutako Henry Bengoa Inventarium lanaren plagio hutsa da eta inoren baimenik gabe plagiatzeko lizentzia hartu dut).

Nolaz eta bi hilabete neramatzan zure berririk gabe, guk eta Urgardenekok Oria ibai hertzera bi-jatzea erabaki genuen eta hura nola zegoen ikusita guri zerbait hautsi zitzaigukean bihotzean, KRA! Plastikozuria lurrean, KRA!

Plastiko beltza arbolan, KRA! Kristal hautsiak landare artean, KRA! Noizbait lagun batek besteari grabatutako CDa, KRA! Kamioi-lari batek, presaka nonbait, leihotik botatuko bi ur botila pixez beteak, KRAGGGGG! Aterki beltz bat, KRA! Konpresa bat, KRA! Konpresa bat, KRA! Konpresa bat, KRA! Zigarro muturrak nonahi, KRA! Galtza bake-roak, KRA! Adidas zapatila gorri bat, KRA! Tonika lata bat, KRA! Galtzerdi bat, KRA! Salbaeslipa, KRA! Salbaeslipa, KRA! Konpre-

sa bat, KRA! Puskatutako kondoia, KRA! Kamioi baten kubieta, KRA! Negutegi dozena bat nerbio, KRA! Radiocasette bat, KRA! Ume baten zapatak, biak, KRA! Patata poltsa urez beteak, KRA! Bizikleta baten kuadroa, KRA! Plastikoz berdea, KRA! Pixoihala txukun txukun doblatua, KRA! Boligrafo bat, KRA! Konpresa bat, KRA! Salbaeslipa, KRA! Toallita hezea ia birrindua, KRA! Konpresa bat, KRA! Toallita hezea ia birrindua, KRA! Heraclio Furnier bi karta, KRA! Zerbeza botila beteak bere

txapa eta guzti, KRA! Plastikoz beltza arbolaren goialdean, KRA! Plastikoz beltza landarean, KRA! Plastikoz beltza arbolaren behealdean, azpitik pasatzen zaioan urari marrazkia egiten diona, KRA! Alkandora gorri eta urdina, koadroduna...mendian galdua uste nuena...KRAAAAAAAAA-AA!!!!!!

Galde egidazue non, edo noiz, edo zelan, baina ez galdetu zergatik...zerrikeri guzti honek bukatu duen Oria ibai ertzean.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Nerea Zinkunegi** | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

### Ika-Mika

## Chávezi, esker onez

Joan den ostiralean, martxoak 8an, elkarretaratze bat egin genuen Chávezen omenez Mikel Laboa plazan. Azken hamalau urteetan Venezuelako lehendakari izan den gizon hori gure ondotik joan da. Elkarretaratze horren helburua Venezuelako herriari gure dolua helaraztea eta, batez ere, gure indarrak bidaltzea izan zen. Chávezek hasitako iraultzaren biderei jarrai diezaiotela adieraztea, laburbilduz.

Munduaren beste toki batzuetan bezala, usurbildarrok ere keinu hori adierazi nahi izan genuen. Elkarretaratzean argazkiak atera ziren Venezuelako gobernura bidaltzeko.

Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren plazan, gehienak gorritz, iraultzaren kolorez, jantzita, eta Chávezi buruz, besteak beste, hitz hauek ere esan ziren:

"(...) Chávezek bere iluntasunak

zituena arren, zabaltzen zuen argia askoz handiagoa zen iluntasun horiek baino. Hauteskuendean islatzen ziren argitasun horren emaitzak. Ezin dugu ukatu Chávezek Venezuelako iraultza bat izan denik, hor baititugu hezkuntza, osasuna eta etxebizitza arloan lortutako emaitzak.

Gaur hemen elkartu gara, beste munduko toki batzuetan bezala, Venezuelako herriari gure dolua adierazteko. Eta atzo militante batek adierazi zidan bezala, Bolívar herrien askatzailea izan zen, Chávezek berriz, pentsamenduen askatzailea.

Eskerrak eman Chávezi eta bere inguruko guztiei, beste bide bat posible dela erakusteagatik. Orain, herriak du konpromisoa: iraultzari jarraitzea.

Iraultza bolibartarra pertsona bakoitzaren bihotzean dago, denon bihotzean dago, sentimendu bat baita, egia bihurtu daitekeen amets bat.

Chávezek, lehen aldiz Venezuelaren historian, emakumeari zor zaion garrantzia eman zion gizartean. Berdintasunaren alde lan handia egin zuen. Kargu politikoetan, emakumeak jarri zituen, emakumeen lan-eskubideen alde gogor jardun zuen, eta lehen aldiz munduan, "Mision madres de barrio" ekimenaren bidez, emakumei soldata bat eman zien etxeko lanak egiteagatik; hau da, etxea garbitzeagatik, haurrak zaintzeagatik, janaria prestatzeagatik... Eguneroko ongizatea lortzeko ezinbestekoak diren lan horientatik guztiengatik.

Hori dela eta, niri, Venezuelarra eta emakumea naizen aldetik, Chávezi eskerrak ematea baino ez zait gertatzen, bai Venezuelako hasitako gizarte-eraldaketagatik, bai borroka feministaren alde eginiko lan guztiagatik.

Agur eta beti ohore komandante! Gora iraultza bolibartarra! Gora lati-

noamerika askea!"

Eskerrak eman nahi dizkizuet gerturatu zineten guztioi, niretzat oso polita izan baitzen, eta Venezuelako herriarentzat ere emozioz beteriko momentua izan baitzen.

Bukatzeke, Askapenaren "palante Venezuela" kamisetak salgai jarriko ditugu hiru tokitan: Zendoian, Aitzaga Tabernan eta Gaztetxean. Hiru kolore daude: gorria, beltza eta zuria. Kamiseta nahi duenak toki horietan jarritako zerrendetan idatzi beharko du zer taila eta koloreko kamiseta nahi duen. Kamiseta bakoitzak 10 euro balio ditu. Eskatera egiteko azken eguna apirilaren 5a izango da. Kamisetak apirilaren 12an banatuko dira gaztetxean, 19:00etatik 21:00etara. Kamiseta eskatu duenak bertara joan beharko du, eta bertan ordaindu.

**Aintzane Iribar**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Aste Santuko jai egunak tarteko, datozen bi asteetan ez da NOAUA! aldizkirik argitaratuko. Hurrengo alea: apirilak 12. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 8.

# Ingelesa ikasteko aukera udan, Udarregi Ikastolan

**5**-11 urte arteko hurrek ingelesa lan-  
tzeko aukera izango dute uda honetan,  
Udarregi Ikastolaren eskutik. Udaleku  
irekiak antolatu dituzte, ekainaren 26tik uzta-  
ilaren 23ra. Astelehenetik ostiralera, goizez eta  
lau orduz; 9:00-13:00 artean. "Ingelesa era  
dibertigarri eta desberdin batean ikasteko  
aukera eskaintzen dizuegu. Irakasle "natibo-  
ekin" eta talde txikitan", berri eman dute uda-  
regi.com web orrialde bidez.

Gaineratu dutenez, "ikaste-talde bakoitzak  
bere hezitzailea izango du, jokoak, eskulanak,  
ipuin-kontaketak, antzerkiak, proiektuak, IKTak  
eta abar ingelesez egingo dituzte. Hezitzaile-  
ak, jatorrizko ingeles hiztunak izango dira, hau  
da, ama hizkuntza ingelesa dutenak. Horien  
egonaldia, programan parte hartzen duten ikas-  
leen familietan izango da".

## EPEA: APIRILAK 19

Udaleku irekiotarako izen ematea irekita egon-  
go da, apirilaren 19ra arte. Apuntatzeko Uda-  
regi Ikastolako idazkaritzara gerturatu bai-



Udarregin eman behar da izena.

no ez da egin behar. Prezioa, 300 euro. Nahiz  
merkeago aterako zaion, monitorea etxean  
hartzen duenari. Kasu honetan, "udalekua  
dohainik izango du". Udalekuok burutu ahal iza-  
teko, gutxieneko taldea osatu beharko da.

## UDALEKU IREKIAK UDARREGI IKASTOLAN

Ekainaren 26tik uztailaren 23ra

- **Izen-ematea:** Udarregi ikastolan, apirilaren  
19an baino lehen.
- **Ordutegia:** 9:00-13:00.
- **Prezioa:** 300 euro.

# Aginagako Aste Santuko txokoetan izen-ematea irekita

**A**ginagan, Antxomolantxa elkartekoek  
txokoak antolatu dituzte Aste Santu-  
rako. Datorren astean hasiko dira, beraz,  
izena lehenbailehen ematea komeni.

## TXOKOAK AGINAGAN

Martxoak 25, 26, 27 / apirilak 2, 3, 4, 5

- **Izen-ematea:** 610 875 287.
- **Prezioa:** bazkideek 10 euro, gainerakoek 20.
- **Antolatzailea:** Antxomolantxa K. E.



Aginagako txokoak bi astez iraungo du.

## Arratsalde pasa polita, ostiralean Bihurri ludotekan

Bihurri ludotekak arratsalde pasa ede-  
rra antolatu du ostiral honetarako, mar-  
txoaren 22rako, "Aste Santuko oporrak  
gainean ditugunez eta udaberria ere  
badatorrela aprobetxatuz". 16:30etatik  
aurrera, "Petra, ipurdian bost letra dator-  
kigu bisitan sorpresaren batekin eta  
ondoren bazkideentzat merendola goxo  
goxoa izango da. Animatu zaitzete!", luza-  
tu dute gonbita.

## Ziortzako udako kanpamenduan izena emateko garaia da

Peñaloscintosea (Errioxa) joateko aukera  
izango dute aurten ere, LH 5-6 mailetan  
eta DBH zikloan ikasten ari direnek. Izen  
ematea irekita dago martxoaren 31ra arte.  
Larunbat honetan, hilaren 23an, apaiz  
etxean apuntatzeko aukera egongo da,  
11:00-13:00 artean. Posta elektronikoz ere  
egin daiteke: ziortzage@gmail.com. Edo-  
ta izen emate orria Apaiz Etxeko buzoian  
utzita. Bertan dira apuntatzeko orriak eta  
baita Sutegin ere. Antolatzaileek oharta-  
razi dutenez, "plaza mugatuak izango dira  
aurten ere!". Bi txanda prestatu dituzte:  
**DBH 1-4:** uztailaren 4tik 17ra.  
**LH 5-6:** uztailaren 17tik 25era.



Plazak mugatuak izango dira. Izen-emate orriak Sutegin eta Apaiz Etxean dira.

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

663 08 76 71 • 943 24 34 65

**izagirre**

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11

izagirreletrizitate@hotmail.com

Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

943 370 008

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

# Etxegabetzeen arazoa, konponbidean?

“KALERATZEAK STOP” PLATAFORMAKO KIDEAK POTXOENEAN IZAN ZIREN MARTXOAREN 5EAN

Europako auzitegiek argi hitz egin dute beste behin; etxe kaleratzei loturiko espainiar estatuko legediak europar batasuneko araudia urratzen du. Ez ditu herritarrek behar bezala babesten hipoteken “abusuzko” baldintzen aurrean eta etxe kaleratze bat etetea ez du ahalbidetzen. Hauxe, besteak beste Europako Batasuneko Justizia Epaitegiak martxoaren 14an kaleratu zuen ebazpenaren nondik norako nagusiak. Espainiar gobernutik aipatu legedia aldatzeko asmoa erakutsi dute orain.

Ebazpen honen zain ziren, besteren artean, “Kaleratzeak Stop” plataformako kideak. Usurbilgo Udalak antolatuta, martxoaren 5ean Potxoenean bilguneko ordezkariek eskaini zuten hitzaldian, artean aipatu ebazpena kaleraetzeke zegoenean, baikor agertu ziren halere. Gertatu den moduan, etxegabetzeetan kaltetuak direnen aldeko ebazpena izango zela uste zuten. Horrek, iragartzen zuten, “hipoteka legea aldatzea ekar dezake”.

*“Bankura negoziatzera joan den kaltetu bat, kasu batzuetan mehatxatua ere atera izan da”*

## KALTETUAK, BABES FALTAN

Kalkulatzen dutenez, krisialdia hasi zenetik espainiar estatuan 350.000 familiek galdu dute jada euren ohiko etxebizitza. Azken aldi luzean bezala, langabezia tasak gorantz jarraitzen du. Langabetuen erdiak ez du inolako laguntzarik jasotzen. Eta honek noski, hipoteka ordaindu ezina dakar. Hileroko kuotei aurre egin ezin zaienean, hor hasten dira komerik askorentzat.

Hilabete amaiera heldu eta



Berriki aditzera eman dutenez, Europako Batasunaren araudia urratzen du Espainiakoak.

ezin hipotekaren kuota ordaindu. Ez ordaintzeak, argi denez, ondorioak dakartza. “Legediak lehen hilabetetik, bankuari uzten dio prozedura exekutiboa abiaraztea”, zioten Potxoenean, kaleratzeen aurkako plataformakoek. Eta pixkanaka, ordaindu gabeko kuotak eta atzerapen interes guztiak eskatzen hasten zaizkie bankuetatik, zorretan direnei.

Prozedura exekutiboa abiatzen bada, ordutik etxegabetzea gauzatu arte halere, denbora pasatzen da, eta ez gutxi. “16-18 hilabete, prozesu oso geldoa da”, berri eman zuten “Kaleratzeak Stop” plataformakoek. Garrantzitsutzat jo zuten, egoera horretan aurki daitekeen edonork, kaleratzeen aurkako plataformetan laguntza eskatzea. Laguntza, informazioa eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituzte eta egoerari aurre hartzea aholkatzen diote, halako estuasunetan aurkitu daitekeen edonori. Bankuak epaitegieta-

ra jo baino lehen, laguntza eskatzea. Hartara, bankuekin, “negoziatzea” errazagoa dela diote, “taldeak negoziatzio ahalmena du”. Hainbat kasutan gertatutakoa azaldu zuten Potxoenean. “Bere kasa bankura negoziatzera joan den kaltetu bat, lotsarazita, eta kasu batzuetan mehatxatua ere atera izan da. Plataformakoekin joan astebetara, eta tratua zeharo aldatzen dute”, adierazi zuten “Kaleratzeak Stop” plataformakoek. Halako egoerak konpontzeko bankuek borondate falta dutela adierazi zuten.

## Doako justizia zerbitzua, eskuragarri

Bankuek epaitegieta- ra jotzen duten unetik, hau da, “prozedura exekutiboa abiatzen denean, panorama zeharo aldatzen da”. Egoera dezente zailtzen dela diote “Kaleratzeak Stop” plataformatik. Kaltetuak defentsa eskubiderik ez duela izaten salatzen dute, eta askotan, kaltetuek prozedura bera ez du-

tela ezagutzen. Zentzu horretan, ezin ahaztu, abokatu eta prokuradore bat beharrezkoak direla. Gogorarazi nahi izan zuten, bada, doako justizia eskatzeko aukera. Hau da, kaltetua doan defendatuko duen zerbitzua eska daiteke. Informazio gehiago: justizia.net atarian. Eskaera hau egiteko zenbait baldintza bete eta hainbat paper aur-

keztu behar dira. Zeregintan, laguntza eskaintzen dutela ohartarazten dute “Kaleratzeak Stop” elkarteek.

Eta beste kontu bat. Zerbitzu honetara jotzen den unetik, abian den prozedura eten egiten da. Kaltetuaren defentsa berriak, “kasua aztertu behar duelako”. Modu honetan, hitzaldian adierazi zuten, “denbora irabazten da”.

# Ehunka etxe kaleratze agindu geldiaraziak izan dira

**P**rozesua lehenago konpontzen ez bada, amaieran, ordaindu ezin den bizilekua enkantera ateratzen da. Edonork eskaini dezake diru-kantitate bat pisu horren truke. Une horretatik aurrera, bizilekua galtzen du kaltetuak, baina hori gutxi ez eta gainera, pisua kentzearekin batera “gainerako zorra eskatzen dute” bankuek. Etxerik gabe, eta zorra kitatu ezinik aurkitzen dira asko, baita euren senideak ere. Hainbat kasutan, etxe-ko bizilagunak eta bizileku bereko abaldunak baita. Azken hauek jarritako “zati hori ere aprobetxatuko du eta bankuak zorra kitatzeko”, plataformakoek gogorarazten dutenez. Badira etxea galdu duten abaldun adinekoak ere.

Datu ezkor hauen beste aldean, urteotan geldiarazi dituzten etxe kaleratzeen zenbakiak daude. Honako hauek, “Kaleratzeak STOP” taldekoek Potxoenean eskaini zituztenak. Guztira 500 etxe kaleratze agindu baino gehiago geldiarazi dituzte. 2011n 100, baina ia, aurreko urtearen laukoitza; 400 etxe kaleratze geldiarazi zituzten, plataformakoei eta herritarrei esker. Potxoenean nabarmentzen zutenenez, “honen atzean gizartearen presioa dago, argi eta garbi”.

Bestalde, hor dago, Europako Justizia Epaitegiak espai-



Stop Kaleratzeak taldeak deituriko manifestazioa Donostian.

**PRESIOAREN ERAGINA**  
**“2011n 100 izan ziren, baina ia 400 etxe kaleratze geldiarazi zituzten, plataformakoei eta herritarrei esker”**

niar estatuko hipoteka legearen aurka kaleratu berri duen epaia. Ez da epe motzera, aurreikusia dagoen aldaketa bakarra. “IRPH” indizea, hipotekari loturiko erreferentzia indizea aplikatzeari utziko baitote apirilaren 28an. Mailegua duten askori hileroko kuota merkatzen lagunduko dio aldaketa honek.

**ORAIN ARTEKO NEURRIEK ERAGINKORTASUNIK EZ**  
 “Ia ezertarako balio ez”. Hitz hauekin baloratzen dute Etxegabetzeak Stop plataformakoei azken aldian hainbat erakundeek hartu dituzten neurriak; Gobernu espainiarraren

bi urteko moratoriari loturiko dekretua, etxea ordainetan emateko bideak, Jaurlaritzaren bitartekaritza zerbitzua...

Gertuko erakundeetan, Udaltan jarriak dituzte begiak Kaleratzeak Stop plataformakoei. Euren esanetan, “Udalak legea ezin du aldatu. Baina kalera-tuak babestu ditzakete”. Gizarte zerbitzuen bidez, edota erakundeok bankuekin dituzten harremanak etenda. Bestalde, etxebizitza ordainetan emateko milioi bat sinadura baino gehiagoren babesia izanik, Herri Ekimen Legegilea tramitazio prozesuan da, lege aldaketa bat eskatzeko.

Honekin batera, kanpaina bat abiatu dute etxegabeetzen ondorioz hutsik dauden bizilekuak berreskuratzeko, eta honenbestez, “etxe hutsekin amaitzeko”. Eta norberak bere etxebizitza erabiltzeko eskubidea aldarrikatzen dute, alokairu soziala bultzatuta.

## Etxe kaleratzeak 2012ko lehen sei hilekoan

EAE: 2.667 (eguneko 15).

Gipuzkoa: 515 (eguneko 3).

Nafarroa: 529 (eguneko 3).

Spainian: eguneko, 525. 2008az geroztik: 420.000 mailegu betearazpen. 350.000 familiek galdu dute euren ohiko etxebizitza.

## Europar, etxe gabe geldituz gero...

**Alemanian:** harrera etxe batek eskaintzen dute.

**Frantzia:** zorra barkatzen dute eta hotzaldiagatik, azarotik martxora etxe kaleratzeak gauzatzea debekatu dute.

**Italian:** etxe kaleratzeen aurrean, etxe-ko bizilagunek bizilekua uzteko sei eta hamabi hilabete arteko tartea dute.

**Portugalen:** zorra kitatzeko, ordainetan etxea eman daiteke eta moratoria onartua dute.

**AEB:** etxea kentzen badizute, maileguko zorra ere kitatua geratzen da.

## Informazioa non?

**Kaleratzeak Stop** taldekoekin harremanetan jartzeko bideak:

- Asteazkenetan 18:00etan, Donostiako Gazte Informazio bulegoan.
- stopdesahucios@plazan.net
- 669 428 598.
- stopdesahucios.plazan.net
- facebook.com/stopdesahucios-gipuzkoa

**USURBIL AUTOAK**  
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
 Zumartegi industrialdea  943 36 10 79

 **Kima** 

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

### Zaindu maite duzun hori!

**R**uper Ordorika kantari oñatiarrak, "Haizea Garizumakoa" diska argitaratu zuen 2009an. Bertan dago "zaindu maite duzun hori" dioden abesti eder hori; diska guztia entzuteak ere merezi duela esango nuke. Esaldi honen harira doa Noauak eskaintzen didan tartetxo honetan idatziko dudana. Oria ibai ertzean bizi garenok badakigu zein aberastasun daukagun inguruan eta zenbat borroka egitea tokatu zai-gun erriberetako lur horiek defendatzeko. Autoz Usurbildik Oriorako bi-dea egiten duten guztiek esango dizute, zein ederrak diren parajeok. Horregatik, herritarrok bermatua izan beharko genuke lur horien erabileraz gain, itxura ere zaintzea. Ipar Euskal Herrian eta Europan bazter guztiak zainduta ikusten ditugu, inori ez zaio baimentzen edonon egitea nahi duena. Ez dut uste eskubiderik dagoenik Aginaga batean 2 metroko al-tura duen burnizko hesi ilunen bitartez norberak bere lurak ixteko. Europan non baimenduko litzateke horrelakorik? Denak horrela hasiko ba-gina berdina egiten Aginagako sail guztietan, zer gertatuko litzateke gu-re erriberarekin? Zer nolako pintalajea edukiko lukete gure zelaiek, sor-ek, basoek, mendiek...? Hori al da guk nahi dugun Aginagaren eta Usur-bilen erredua?

Esaten dudala hala den ala ez seguru egon nahi duenak, Aginagatik pasa besterik ez dauka eta berehala ohartuko da. Azkeneko lerro hauek idazten hasi naizela, zera jakin dut, goian aipaturiko itxutura ia ia osota-sunean onartu berri duela gure udal gobernuak. Zoritzarrez herritarron eskubideak defendatzetik urruti ikusten dut udala.



## KALEZAR

MADDI GALBETE

### 18. aldiz

**1**980. urtean hasi zen ekimenak aurtengoan 18. aldia du. Nola esan, nola azaldu, nola adierazi euskaldun sentitzen den batentzat zen-baterainokoa den Korrikak sortarazten duena? Ez dakit zuei baina niri behintzat, bihotza abiadura handian hasten zait taupaka eta malkoren bat edo beste ere iritsi izan zait begietara noiz edo noiz urrunetik datozen pausu hotsak nabaritzen hasten naizenean. Emozioa pausu bakoitzeko no-la indartzen doan nabaritzen dugun bitartean, lekukoa herririk herri pasa-tzen da, kilometroz kilometro, eta une horretan euskarak bakarrik hartzen du protagonismoa eta protagonismoa euskarak bakarrik du. Hemendik kanpo ekimen honen berri ematen dudun bakoitzean jendea zur eta lur geratzen da eta egia esan geratzekoa ere bada; horren herri txikiak hor-renbesteko indarra nola duen azpimarratzen du beste behin ere. Baina gogoratzea komeni da urteak 365 egun dituela eta euskarak 10 baino gehiago merezi eta behar dituela bizirik mantendu nahi badugu. Ea ba, Korrikan bezain harro uzten diogun euskarari bere lurraldeetan zehar korri egiten!



## SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

### Udaberriaren zain

**S**ukaldeko leihotik begira nago, euria ari du. Euria, hotza, hai-zea... oraindik negua da! Oraindik negua da bai, baina gutxi falta zaio gure udaberri maiteari guregana iristeko. Udaberria eta Aste Santua, biak batera etorriko dira, eta ez litzateke txarra izango, umeen opor egun horietan, eguraldiak lagunduko balu, ezetz? Guraso garenontzat, alde ederra!

Hala ere, erotzeko eguraldiak utzi dizkigu negu honek. Haizea, hotza, euria, elurra... giro epel eta eguzkitsua bat batean, berriro kazkaba-rra, hotza... eta noski, gripeak gogor jo du baldintza hauetan. Etxe gutxi libratu dira gripearen bisitaz.

Eta auzoan, betiko martxan. Pintura kurtsoa badoa, baita yoga ere... Alabak oraintxe bukatu du margolan berri bat, oso polita, laster era-kusketaren bat edo... jajaja. Sagardotegi garaian gaudenez, Aialde-Berrin ere lanean dabilta. Ez dakit herriko sagardotegiak nola dabil-tzan lan aldetik, krisiak eragin handia baitu gauza guztietan, eta haue-tan ere nabarituko dute sosa falta, eta jendearen lan falta. Ea dato-rrer urterako egoera hobetzen den, denen mesederako. Ibaia garbi-tzeko eguna ere antolatu zen duela aste pare bat. Lan asko dago orain-dik egiteko eta ez da batere erraza, baina zabor kilo pila bat jaso zituz-ten. Askotan beldurrezko paraje baten antza hartzen dute ibai ondo-ko zuhaitzek, hainbeste plastiko zintzilik! Oraintxe ari da eguzkia jotzen bete batean sukaldeko leihoan, sartzen utziko diot ez dakit noiz iku-siko dudun berri eta!



## ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

### Eman euskara elkarri

**M**artxoak 23, arratsaldeko 16:30. Zita garrantzitsua, 18. al-dia hain zuzen. Gure ama hizkuntza, europako zahar-re-nen artean zaharrenetakoa estu dabil. Arnasestuka. Gu bezala, korrika, tipi tapa, korrika. Bultzada behar du, heldu dezagun euskara mingainean eta barreiatu dezagun Euskal Herrian zehar. Andoainen hasi, Altsasura. Atzean utzita hau, Urrotz barreiatu eta lza-baraino. Mendi txuriak jaitxi eta Maeztura heldu. Ez dago etenik. In-darrak galdu gabe, tipi tapa, Izurtzaraino. Hemendik Deriora, Deriotik Usurbila, eta azkenean helmuga Baionan. 11 egun korrika. Ehunka ki-lometro Euskal Herrian. Milaka esfortzu zuregatik. Euskara maitea. Zu munduan barreiatzeko, zu euskaldun guztion mingain puntan dan-tzan jartzeko. Jantzi zapatila eta txandal zaharra, eta eman gogoz korri-kari. Merezi duelako, merezi dutelako, merezi dugulako! Zenbat esanahi hain hitz gutxitan. Euskaraz hitz egin behar dugulako, euska-raz bizi. Herri zaharra bai, baina herri berritzaile ere bai. Egizu hitz, herri zahar herri berri eta eman korrikari!



# “Okupazioa aukeratu dugu etxe batean bizitzeko, ez etxe bat izateko”

**A**txegalde ondoan kokatua dagoen Teresaenea eraikinak bizilagunak ditu hila-bete hasieratik. Talde batek, hutsik zen eraikina okupatu du. NOAUA!rako honako elkarrizketa eskaini dute.

## Zerk bultzatu zaituzte Teresaenea okupatzera?

Gutxi batzuen mesedetan ezarritik dagoen gizarte eredu a-salatu eta beste era batean bizitzaren saiatzeko gogoak bultzatu gaitu Teresaenea okupatzera. Egungo errealitatean, argi dagoen moduan, etxebizitza ereduak, banketxeen azpijokoek eta ezarritako politikak gogor zapaltzen dute jendartea, eta herritar askori, zeresanik ez gazteoi, etxebizitza baten beharra asetzea ezinezkoa bihurtu zaigu.

## Noiz okupatu zenuten?

Duela hiru aste.

## Zer pauso eman dituzue, planteatzetik okupazioa gauzatu arte?

Gure artean aspaldidanik konpartitzen genuen etxebizitzaren arazoari buruzko kezka, eta protesta modu bat bezala etorri zen okupazioaren gaia, ez baikara besoak gurutzaturik gertatzekoak gaur egungo egoera larriaren aurrean. Aldi berean, bakoitzaren egoera pertsonala bat etorri da momentu honetan, guztiok bilatzen baikenuen etxe aldaketa bat, beraz gogoz ekin diogu proiektu berri honi.

## Teresaenea nola aurkitu duzue?

Baldintza onetan dago. Azken desaljoaren ondoren berrikun-



Duela hiru urte ere, okupatua izan zen etxe hau.

*“Lanak banatzen ditugu, baratza, etxeko lanak... Askok ikasten ari gara”*

tzak egin zituzten eta ez diogu hemen bizitzeari inolako arriskurik ikusten.

## Nolakoa da zuen eguneroko elkarbizitza?

Egunetik egunera geroz eta hobeto moldatzen gara. Aurretik ezagutzen ginenez eta ez

dugu arazorik izan elkarbizitza bide onetik hasteko. Lanak banatzen ditugu, baratza, etxeko lanak... Askok ikasten dugu bat-batean bestearengandik eta oso aberasgarria iruditzen zaigu daramagun bizimodua.

## “Gurekin hitz egin nahi duen orok ateak irekiak ditu” zeren?

## “Gazte batek independizatu nahi badu, non du etxebizitza eskubidea?”

**Okupazioa aukeratu duzue, etxebizitza bat izateko. Zuek bide honi heldu diozuenarako, zuen ikuspegitik zertan ari dira huts egiten etxebizitza politikak?**

Okupazioa aukeratu dugu etxe batean bizitzeko, ez etxe bat izateko. Bizi garen tokiak gurea izan behar duenaren ustea barneratu digute betidanik, baina espazio baten beharrak ez liguke gurea denik sentiarazi behar. Etxebizitza guztientzat eskubide bat omen da baina egungo politikarekin gure iritziz negoziak egiteko tresna bat gehiago besterik ez da. Noski, gazte batek gurasoen etxean eman dezake bizitza baina independizatu nahi badu, non du etxebizitza eskubidea? Zeharo lotuko duen hipoteka batean? Neurritz kanpoko alokairuetan?

**Zuen esku egongo balitz, nola gauzatuko zenukete gutako bakoitzak etxebizitza bat izateko duen eskubidea?**

Lehenik eta behin, etxebizitza premia dutenentzat hutsik dauden etxebizitzak eskuragarri egon beharko liratekeela uste dugu, eta horretarako beharko lirateke edonorentzat. Bestetik, inposaturiko politikak eta bizi ereduak datu behar dira errotik, bizitzeko beste moduak badirela konturatu gaitzen.

**Etxe hutsak berrerabiltzea litza-teke alternatibetako bat zuentzat? Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Orokorrean baikorrak gara, krisi egoerak baditu bere alde onak ere, begiak irekitzearena adibidez. Jende asko ari

**nioten NOAUA!ko ika-mikan. Zer esan nahi zeniekete usur-bildarrei?**

Argi utzi nahi dugu ez gatzela inori gauzak nola egin behar diren esatera. Besterik gabe, gure bidea hartu dugu, nahiz eta ohiko bizimodua ez izan, jendeak ulertu eta errespetatzea nahiko genuke, laguntasunean bizi nahi dugu. Beraz, gonbidaturik zaudete infusio edo kafe bat hartzera.

**Besterik erantsi nahi zenukete?**

Jendeak gure pentsaera zertxobait gehiago uler dezan, beste gauza material batzuekin egin dezakegu konparaketa bat. Erabiltzen ez diren etxe hutsak erabiltzea, soberan ditugun arropak, jostailuak, liburuak... erabiliko dituen pertsona bati eman edo uztea bezain ondo ikusten dugu.

da ohartzen gizarte hau ez zela zirudien bezain eroso eta egonkorra, badakigu gu baino askoz ere egoera okerragoan bizi den jendea dagoela, zer esanik ez munduko beste herrialde batzuetan. Arazoak konturaturik, errazagoa dugu irtenbide bat ematea edo ematen saiatzea, bakoitzak ahal duen neurrian.

**Teresaenea behin betiko bizileku bezala ikusten duzue? Aldi baterako bakarrik?**

Ez dugu noski Teresaenea behin betiko bizileku bezala ikusten, ez dakigu zer gertatuko den aurrerantz. Momentu honetan hona sartzeko erabaki dugu, gure bizitza hemen egitea, espazio huts honi erabilpen bat eman eta izan zuen mugimendua berreskuratuz.

# “Larunbat honetan denok

Larunbat arratsaldean iritsiko da Korrika: 15:44ean Mapiletik helduko da

**I**ka ika ika, hemen dator Korrika, bozgorailuetatik hitz hauek entzuteko gutxi falta da. Larunbat bazkaloste honetan, 15:44 aldera sartuko da Aginagako Mapil paretik. Kaxkoa, Santuenea eta Zubieta zeharkatuko ditu gero. Lekukoa eskuz esku ibiliko da, euskara ikasten ari direnak omendu asmoz. NOAUA! Kultur Elkartearen izenean, bazkide eta kronista lanak egiten dituen Ana Urdangarinek hartuko du Euskal Herri osoa zeharkatu eta barruan mezu ezkutu bat daraman aipatu lekuko hau. Bera-ekin solaserako tarte hartu dugu, emozioz beteriko hitzordu honen bezperetan.



Korrika duela lau urte. Argazkiaren ezkerrean da Ana Urdangarin.

**“Emozio handia izaten da. Oraingoan, lekukoarekin, are gehiago!”**

**bazabiltza bestelak ere?**

**Ana Urdangarin.** Gustuko dut korrika egitea. Hurbilago San Silvestren parte hartu genuen abenduan.

Duela gutxi lilatoian. Proba ofizial batean parte hartzen nuen lehen aldia izan zen martxoaren 3koa. Urtero ibiltzen naiz saiatuko naizela, baina asteburu horretan beti beste planen bat izaten dut

eta inoiz ez naiz atera orain arte.

**Korrika badator. Zer sentitzen duzu lasterketa iristear denean?**

Emozio handia da, jende pilo dago. Nabaritu egiten da tentsio, emozio puntu hori. Hori lilatoian. Korrikan are gehiago. Beste urteetan atera naiz Korrikan, beti atzean. Emozionantea da. Oraingoan lekukoarekin, are gehiago izango dela pentsatzen dut. Giro oso herrikoa eta polita izaten da. Denak animatzeko modukoa.

**Aurtengoan, zer ibilbide egiteko asmoa duzu?**

Lekukoa hartuko dudan gunetik aurrera lasterka egingo dut.

**Noraino joateko asmoa duzu?**

Ez dakit, ikusiko dugu. Justu gau horretan afaria dut. Bero-keta lanak izango dira. Denbora eman beharko du buelta-tu eta afaritarako prestatzeko.

**Korrika larunbatean, baina azken aldian lasterketetan**

te hartu genuen abenduan.

## “Atzerritar askoren jarrera oso positiboa da”

**Euskaraz jakin arren, erdararako joera dagoela eta kezka sortu da herrian. Jendaurreko lana duzu. Lantokian, kalean... hala-korik sumatzen duzu?**

**Ana Urdangarin.** Desgraziaz bai. Gure artean euskaraz hitz egiten hasi eta erdarazko espresioak hor ditugu. Egun hauetan koadrilakoe-ekin hitz egiten, ohitura hori desgraziaz badagoela genion. Korrika datorrela eta, hausnarketa hori egiteko une polita da. Euskaldunon artean badugu halako joera. Askotan, erdalduna dagoenean errespetuz, ulertzeko erdarara jotzen dugu. Baina euskaldunon artean ere badago joera hori.

**Zergatik gertatzen da zure ustez? Ez dakit. Baina ohitura txar hori badugu.**

**Egoerok gaintzeko zer egin daiteke?**

Gu oraindik puntu horretara ez gara iritsi, neure inguruan behintzat ez dago erdarako ohitura hori. Ez bada behintzat erdaldun bat dagoela tarte-ean. Eta erdaraz hitz egiten hasten bagara, gure artean askotan bada- go norbait zertan ari garen, erdaraz zergatik hitz egiten ari garen esaten duena. Gogoratze hori behar dugula uste dut. Tristeki badago joera hori eta hori erradikatzen hasteko momentua ere bada. Gure esku dago.

**Euskara ikasten ari direnak ari da omentzen 18. Korrika. Euskaldun berriekiko hartu emana nola bizi duzu lantokian edo herrian?**

Ondo hitz egiten asmatu ez arren, lehenengo pausoa ematen dutenak beraiek izaten dira. Eurek esaten dute, mantso hitz egiteko mesedez, baina euskaraz nahi dutela hartu emana. Atzerriko jende dezenterekin ere berdin. Hauen kasuan, askotan umeak izaten dira lehenengo euskara ikasten dutenak, eta gero gurasoak sentitzen dira ikasteko behar-reen. Bestela ezin haurra ulertu. Alde horretatik, atzerritar askoren jar- rera oso positiboa izaten da.

# Korrikara, euskararen alde”



Duela bi urte, goizeko 7:00ak aldera iritsi zen Korrika. Aurten, arratsaldean iritsiko da gure artera.

## Oroitzen al duzu zure lehenengo Korrika?

Urte dezente daramatzat parte hartzen. Beti ateratzen saiatzen naiz, herriko tartean besterik ez bada ere. Gogoan dut, goizeko ordu txikietan etorri zen urte hura. Nahiko gogorra izan zen. Usurbilen sartu eta Aginaga aldera joan ginen. Aginagan sekulako abiada hartu zuen Korrikak, buelta eman beharko nuela erabaki nuen. Bestela ez nin-

tzen lanera iritsiko.

## Korrikarako prestatzen zara?

Kirola egitea gustuko dut. Fisikoki nahiko ondo sentitzen naiz. Prestatu gabe ere ateratzen naiz. Baina oraingoan, bereziki gehiago prestatuko naiz.

## Aholkurik bai, Korrikan aterako asmo dutenezat?

Komenigarria da beti, alde zurretatik beroketa ariketak

egitea. Denentzako ona da, lesioak eta saihesteko. Batez ere ohituta ez dagoen jendea. Emozioarekin korrikan hasi eta lesiorik ez izateko.

## Animatzeko zer esan herri-tarrei?

Denak animatzea, giro ederra izaten da eta. Animatu herri-tar guztiok, gainera ordu politean pasako da Korrika. Emozio handikoa izan dadila, jendetsua.

## Aginaga, Txokoalde, Usurbil, Santuenea, Zubieta...

- Korrika 18 martxoaren 23an larunbata iritsiko da Usurbil aldera.
- 15:44etan Mapiletik Aginagan sartuko da.
- N-634 errepidetik barrena helduko da gero Kaxkora. Mikel Laboa plaza ondoko errotondatik Kalezarrera igoera gero. Eta handik behera Bizkarrera. Santueneako bideari heltzeko. Handik Zubieta bidea. Hipodromo ondoko Ori gainera zubian lasartearrek hartuko dute lekukoa.

## Baionara igandean, autobusez

Usurbildik igaro ostean, bihar-munean ailegatuko da 18. Korrika helmugara, Baionara. Amaierako ekitaldia, 12:30etatik aurrera ospatuko da, Baionako Herriko Etxean. Hortik aurrera, egun osoko jaialdia antolatuko dute Lapurdiko hiriburuak. Hiru festa gune nagusi prestatu dituzte antolatzaileek. Bate-tik, merkatuan, "Baionan kantuz", Maialen Errotabehereren emanaldia, "Begiz begi" ekitaldia edota Patxi ta konpainia izango dira. San Andres izeneko gunean, kontzertuak: Esne Beltza, Willis Drummond, Itziarren Semeak... Eta azkenik, Xhao kaian, herri bazkaria, "Lekukoaren Bila" ginkanaren finala edota "Korrikantuz" ekimenak antolatuko dituzte. Horrez gain, kale animaziorik ez da falta-ko Baionan. Hau guztia, 13:30etatik aurrera, Korrika amaitu ostean.

- Usurbildik Lapurdiko hiriburura joateko autobusa antolatuko da Korrika Batzordeak.
- Goizeko 9:15ean irtengo da Mikel Laboa plaza ondoko errotondatik.
- Gaueko 21:00ak aldera itzulera.
- Autobusean apuntatzeko aukera dago, ostegunera arte, Bordatxon, Txiribogan eta Etumeta AEK euskaltegian.

## Martxoak 23. 15:44. Aginaga.

Larunbat bazkalosterako prest denak, Korrika 18 arratsaldean helduko baita oraingoan. 15:44etan Mapiletik Aginagan sartuko da. N-634 errepidetik barrena helduko da gero Kaxkora. Mikel Laboa plaza ondoko errotondatik Kalezarrera igoera ondoren. Eta handik behera berriz, Bizkarrera. Santueneako bideari heltzeko gero. Handik Zubieta. Hipodromo ondoko Ori gainera zubian lasartearrek hartuko dute lekukoa.

Horixe izango da euskararen aldeko lasterketak gurean osatuko duen ibilbidea. Kostaldetik helduko da 18. Korrika. Aginagara heldu baino lehen, lekuotatik igarotzeko da:

- 12:32 Zumaia.
- 13:31 Getaria.
- 14:06 Zarautz.
- 15:01 Ori.
- 16:32 Usurbil.

Aginaga, Kaxkoa, Santuenea eta Zubieta zeharkatu ostean Lasarte-

tik barrena Buruntzaldeko udalerrietatik hiribururako bidea egingo du:

- 17:09 Lasarte.
- 18:35 Hernani.
- 19:20 Astigarraga.
- 19:40 Donostia.

Korrika nondik eta noiz igaroko den jakiteko, baita eguneroko argazki eta kroniken berri, korrika.org web orrialdean duzue. Atari berean, ibilbide osoa ikusteko mugikorrerako aplikazio bat ere jaitsi daiteke.

# Korrika Txikiarekin hasiko da festa

**O**stegun honetatik aurrera, Korrikaren aldeko ekimenetan murgilduko gara. Korrika Txikiarekin hasiko dira ospakizunak. Udarregi Ikastolako ikasle eta irakasleak lasterka ikusiko ditugu martxoaren 21 honetan, euskararen alde. Txokolatea dastatu eta antzerki emanaldia programatu dute gero. Hortik aurrera, ostiralean eta larunbatean bereziki egitarau zabala prestatu du Korrika Batzordeak. Erromeria, "Txokotan palaz", bertso afaria...

## MARTXOAK 21 OSTEGUNA KORRIKA TXIKIA

14:30 Korrika Txikia.  
16:30 Txokolatada eta antzerkia frontoian.



Ostegun honetan, 14:30ean hasiko da Korrika Txikia.

## MARTXOAK 22 OSTIRALA

22:00 Pin pon txapelketa frontoian (izen ematea, 21:30etan).

## MARTXOAK 23

18. KORRIKA USURBILEN  
11:00 Buruhandiak Kaxkoan.

11:00 Txokotan palaz, jokoak Usurbilgo frontoian.

15:44 Aginagatik sartuko da Korrika 18.

16:33 Korrika 18 Kaxkoan.

18:00-20:00 Erromeria frontoian.

21:00 Bertso afaria Agerialden, Beñat Iguaran (Amasa), Adur Gorostidi (Larraitz) eta Imanol Lizarazu "Habana" (Igeldo) bertsolariekin. Txartelak salgai 16 eurotan, Txirristran, Aitzagan eta Etumeta AEK euskaltegian.

## MARTXOAK 24 IGANDEA: BAIONARA

9:15 Korrika 18ren amaiera festara joateko autobusa, Mikel Laboa plaza ondoko erroton-datik abiatuta.

21:00 Itzulera.

Izen ematea: Bordatxon, Txirribogan eta Etumeta AEK euskaltegian, martxoaren 21a baino lehen.

Antolatzailea: Korrika Batzordea.

## Adi, Korrikaren alde antolatu diren ekimenetarako izen emateekin

**E**uskararen aldeko lasterketa Usurbila datorrela eta, hainbat ekimen antolatu ditu herrian azken hileotan lanean aritu den Korrika Batzordeak. Adi, hauetako zenbait hitzorduetan parte hartzeko izena eman beharra baitago aldeaz aurretik.

### BERTSO-AFARIA

Batetik, Usurbildik Korrika pasa eta ordu gutxira, bertso-afaria antolatu dute larunbat gaueko 21:00etatik aurrera Agerialden. Hiru bertsolari gazteek girotuko dute otordua: Beñat Iguaranek (Amasa), Adur Gorostidik (Larraitz) eta Imanol Lizarazu "Habana"-k (Igeldo). Ekitaldirako txartelak salgai daude 16 euroren truke, Txirristran, Aitzagan eta Etumeta AEK euskaltegian.

Beste bi ekitaldietarako izena eman beharra ere izango da, baina momentuan bertan. Batetik, ostiral gau



Beñat Iguaran, bertso afarian arituko den bertsolarietako bat izango da.

honetarako frontoian antolatu den pin pon txapelketa, baita leku berean baina larunbat goizez burutuko den "Txokotan palaz" ekimenean ere. Antolatzaileek pala txapelketa honetan parte hartzera animatu nahi dituzte adin guztietako herritarrak; haur, gazte nahiz helduak. Etxetik norberak bere pala eramatea eskatzen da. Hortik aurrera, izena ematen dutenekin taldeak osatu eta palan ibiltzeko aukera izango da larunba-

tean, 11:00etatik aurrera.

### BURUHANDIAK KAXKOAN

Iragarritakoez gain, Korrikaren aldeko beste ekitaldi bat ere antolatu dute larunbat honetarako. 11:00etatik aurrera, buruhandiak ibiliko dira Kaxkoan barrena. Beraz, hor ere, korrika saio bat baino gehiago egiteko aukera izango dute etxeko txikiak.

## Haize errota koloretsuekin parte hartzeko deia

Duela bi urte bezala, Usurbil Zero Zabor taldekoek larunbateko Korrikan haize errota koloretsuekin parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Alkartasuna Kooperatibaren eskuratu daitezke haize errota, bestela, ondoko guneotan:

### Martxoak 22, ostirala

16:30-17:00 Zubietako frontoian. Norbaitek ezingo balu bertara joan, 671 605 760 telefonora dei dezala.

### Martxoak 23, larunbata

15:15-15:40 Aginagako frontoian.  
16:00-16:15 Dema plazan.

## "Nire argazkia" dokumentala gaztetxean

Usurbilgo Gaztetxeak zine-foruma egingo du ostegun honetan. 22:00etatik aurrera, euskarari loturiko dokumental bat eskainiko dute, "Korrika Euskal Herri osoa zeharkatzen ari dela baliatuta". "Nire argazkia" izeneko lana proiektatuko dute.



Luis Aranalde

# Asisko S. Frantzisko Berria Erroman?

2013-03-22

Aita Santuaren hautaketarako prestatuta egoten den liturgia ondo errespetatu zuten atzo iluntzean. Ke zuria lehenbizi eta "habemus papam" iragarpenera gero, dena erritualak dioen bezala. Jorge Mario Bergoglio argentinarra eta jesuita aukeratu dute.

Aita Santu bezala Frantzisko deituko da; latinezko esakerari jarraituz: "omen nomen", hau da, nolako izena, halako izana. Zalantzarik gabe, Asisko San Frantziskoren ideala gauzatu nahi du bere aitasantutzan, hau da, mundu hobe bat eraikitzen saiatu pobrezia-aren testigutzan eman. Loiolako San Inazio ere S. Frantziskoren bizitza irakurriz konbertitu zen. Apaltasuna, naturarekiko begirunea, pobrezia eta hurkoarekiko maitasuna ziren San Frantziskoren programaren ardatz nagusiak.

Jesuita dugu Frantzisko Aita Santua. Italiar inmigranteen semea, 1936an jaioa. 1998an izendatu zuten Buenos Airesko artzapezpiku. 2005etik 2008ra Argentinako Gotzainen Konferentziako presidente izan zen.

Bere eguneroko bizitzan oso apala, gertukoa, soila eta pobrea da: berak prestatzen zuen bere otordua, lanera joateko autobusa edo metroa hartzen zuen, apartamentu txiki batean bizi zen, Buenos Airesko auzo baztertu guztietara joaten zen jende xumeekin hitz egiteko. Ostegun honetan bertan Aita Santuarentzat



Frantzisko Aita Santua, izendatu berrian.

jarrita zegoen limusina utzi garajean eta kotxe utilitario bat hartu omen du bere joan-etorrietarako. Predikatzen duena praktikan jartzea seinale ona. Txiroen alde eta ustelkeriaren aurka maiz aritu izan da. lazko abuztuan honela zioen: "Haserretu zaitzete injustiziaren kontra, ogia eta lana ez delako denentzat iristen". Bere ustez giza eskubideak ez dira urratzen indarkeria erabiliz edo hilez bakarrik; "muturreko pobrezia-aren baldintzak eta ezberdintasun handiak sortzen dituzten egitura ekonomiko injustuek ere zapaltzen dituzte giza eskubideak". Eta beste behin: "Hiri honetan (Buenos Aires) langileek esplotazioa pairatzen dute tailer klandestinoetan".

Dotrina aldetik kontserbadore

samarra da. Ika-mikak izan zituen Argentinako gobernuarekin gay eta lesbianaen ezkontza legea bultzatu zuten. "Jainkoaren planaren aurkako asmo suntsitzailea da horien ezkontza". "Deabruaren mobida" ere deitu zion.

Videla eta Masseraren errepresio militarra egon zenean Argentinan, Elizak katolikoaren hierarkiaren jarrera nahiko epela izan omen zen; Bergoglio jesuiten parobintziala zen garai hartan eta bere jokabidea militarren errepresioaren konplize samartzat salatu zuten.

Badu zereginik gure Frantzisko Aita Santuak. Nola garbi dezake Elizaren irudia? Eta batez ere, Vatikanoko giro ustel, anakroniko eta ebanjelioaren aurkako itxura hori? Erron-

ka latza. Ez dakit nola moldatuko den, baina, honako arlo hauek landu behar lituzke nire ustez Elizak galdu duen sinesgarritasuna berreskuratu nahi badu:

1-Libertatea: bera pertsona askea izanez lehenbizi, Vatikanoko ezarriko dizkion kateak apurtuz, eta kristau kolektibo guztiei askatasuna emanaz bakoitzak bere iritzi teologiko eta moralak lasai adieraz ditzan, Elizaren errepresioaren beldurrik gabe.

2-Emakumeak Elizan duen rola aitortu eta bultzatu dezala, irudi matxista eta zaharkitu hori alde batera utziaz. Mutilzahar kluba dirudi Vatikanoko; talde ridikulu hori ikusten duzue- an ez dakizu zer egin: parrez leher- tu edo negarrari ekin.

3-Vatikanoko ustelkeria kasuak eta munduan zeharreko erlijiosoen pederastia delituak salatu eta argitu beroien egileak epailearen aurre- ra bidaliz; agidenez, babesa eman die Elizak ia orain arte.

4-Modernitatearekin beste jarre- ra baikorrago bat eduki behar luke eta gaurko gizartearen eskakizun- tara moldatzen saiatu.

5-Pertsona ororen zerbitzuan jar dadila apaltasun osoz; entzun dezala inposatu beharrean eta errespetatu gaitzetsi ordez.

Hauxe opa diot. Ez dakit Vatikanoko jendilaje horrek utziko dion plan bikain hori aurrera eramaten. Baina, lortuko du hain maite duen Asisko S. Frantziskoren espiritua eta karisma bereganatzen baditu.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**TAXI 24h**

Jose Etxabe USURBIL

**677 37 34 66**

**943 36 21 78**

**Otar-Goxo**

Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2

☎ 943 36 55 81

20170 Usurbil

# Opor hauetan, Kirol Txokoak

APIRILAREN 2TIK 6RA, USURBIL FT TALDEKOEN ESKUTIK, 6 ETA 12 URTEKOENTZAT

**D**atozen oporraldiotan kirol jarduera desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute 6-12 urte arteko haurrek, Usurbil FT-koek apirilaren 2tik 6ra antolatu dituen kirol txokoei esker. Goizero, begiraleekin ekimen desberdinak burutu asmo dituzte, Haranen, Kiroldegian edota frontoian. Usurbil FT barruko talde sozialak bideratu du jada hirugarren ediziora heldu den ekimen hau. Bilgune honetako arduradunekin egon gara, txokoez eta esku artean dituzten egitasmoez hitz egingeko.

## Kirol txokoetan zer egin asmo duzue?

**Nagore Unanue.** Kirol eta jolas desberdinak egingo ditugu. Hasieran ezagutza jolasak, denen artean taldea egin eta monitoreekin komunikazioa sortzeko. Gero, egunero kirol desberdinak egingo ditugu.

**Ainhoa Aizpurua.** Kirol txokoak izan eta Haranen izango direnez, futbol txokoak izango direlakoan daude haurrak. Baina programaketan, kirol desberdinak sartzen saiatu gara. Iaz ere kirol jarduera desberdinekin probatu genuen eta oso ondo ateratu zen. Aurten ere bide horretatik joko dugu.

## Zer adinetako gaztetxoei dago zuzendua?

**N. U.** Lehen Hezkuntza osoari, 6-12 urte artekoek. Kirol txokoak irekiak dira, ez bakarrik futboleko dabilzantzat. Usurbilgo haurrak gerturatu eta kirol guztietaz gozatu ahal izatea nahi dugu.

## Kirola bultzatu asmo duzue?

**A. A.** Helburuetako bat da. Futbol Eskolan dabilzan hau-



Taldeak dituen egitasmoez ere hitz egiten digute Ainhoak eta Nagorek.

## KIROL TXOKOAK "Goizetan, begiraleekin ekimen ezberdinetan parte hartuko dute"

urak euren artean taldeak egin dituzte. Baina badira asko futbolaraz gain, judo, igeriketa, pilotan... dabilzanak. Datorren oporraldian denak elkarrekin kirol jarduera desberdinak lantzea da asmoa.

## Zer harrera izan dute txokoei aurreko urteetan?

**N. U.** Antolatzen diren hirugarren urtea da hau. Guretzat lehen aldia antolatzaile moduan, iaz monitorea lanetan aritu ginen. 50 ume inguruk parte hartu zuten, kopuru polita. Ia aurten zer gertatzen den.

## Haurrek nola pasatzen dute txoko hauetan?

**A. A.** Haranen izanda, futbolaria da kirol izarra. Batez ere, hemengo futbol zelaian ibiltzeko prestatuta etortzen dira. Futbol eskolan, hirugarren mailatik aurrera hasten dira. Orduan LH-ko lehen eta bigarren mailako gaztetxoak, euren ekipamendu osoarekin futboleko aritzeko hemen izaten dute lehen aukera. Horregatik saiatzen gara baita, kirol txoko hauetan Haranetik ateratu eta Oiarde Kiroldegira eta frontoira joaten. Haurrak futboleko jokatzera soilik ez datozela, ideia hori zabaltzeko.

## Futboleko aritzera bakarrik ez datozela, alegia. Besterik esan nahi zeniekete kirol txokoetan parte hartuko dutenei?

**N. U.** Ez etortzea futboleko kontu horrekin, gauza gehiago egingo ditugu. Saiatuko gara arlo desberdinetako monitorea hartzen, dena ondo joateko.

## Usurbil FTren bazkideetza kanpainak martxan jarraitzen du

### Beste lan ildorik edo egitasmorik baduzue esku artean?

**Nagore Unanue.** Kirol txokoen ostean, seguruenan, Usurbil Cup txapelketarekin hasiko gara. Gero, Usurbil FT-ren eguna antolatuko dugu.

**Ainhoa Aizpurua.** Usurbil Cup txapelketaren antolakuntza talde sozialak bakarrik ezin du aurrera eraman. Klubeko zuzendaritzako partaide guztien elkarlan handia izaten da. Azken eguneko festan, haurren aurpegiak ikusten dituzu frontoian eta lan

honek merezi du. Horrekin geratzen gara.

### Bazkideetza kanpaina abian duzue. Bazkide izateko zer egin behar da?

**N. U.** Batetik, Rural Kutxara joan eta izen abizenak eman daitezke. Eta gero asteburuetan tabernan egoten gara. Hemen bertan baditugu bazkideetza orriak. Jendea bazkide izatera animatzen dugu. Ia Usurbil FT-ko bazkideak geroz eta gehiago izan eta pixkanaka erritmoa hartzen joaten garen.

**A. A.** Herritarrak ere animatzen hasi dira. Batez ere ahoz aho zabaltzen joan delako. Antolatzen ditugun jokoak ere pizgarriak izaten ari dira. Ia jendea erakartzen asmatzen dugun. Bazkideetza klubari ekonomikoki laguntzeko modu bat da. Zozketak bazkide izate hori nolabait eskeretzeko egiten ditugu.

**N. U.** Bide batez, esan, gure taldeek ere animuak jasotzeko beharra dutela. Talde asko daudela hemen. Haranera etortzera animatu dadila jendea. Giro ederra izaten dugu.

# Gipuzkoako txapeldun trinketean



Mikel Landa eta Enrike Huizi, eskuz binaka Gipuzkoako txapeldun egin berritan.

**M**artxoaren 9an jokatu ziren trinkete txapelketako finalak. Senior mailan, eta eskuz binaka, Usurbilgo taldea nagusitu zen. 40-26 irabazi zioten Mundarrok

taldeari. Xabier Barandiaran eta Aritz Irazus-tabarrena fin aritu ziren finalean, baina azkenean Enrike Huizi eta Mikel Landaren esperientzia gailendu zen.

## Kiroldegiko tabernaren kudeaketa, esleipen prozesuan

**O**iardo Udal Kiroldegiko tabernaren kudeaketa, ustiaketa, mantenua eta garbiketa zerbitzu administrazio kontratu berezia esleitzekoa da Usurbilgo Udala. Eskaerak aurkezteko apirilaren 2ra arteko tarte dago. Interesdunek hiru kartazal itxi desberdinetan aurkeztu beharko dute, deialdirako eskatzen duten dokumentazioa.

Urtebeteko kontratua izango da, urtez urte lau urtera arte luzagarria izango dena, interesdunak baldin eta kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago hala eskatzen badu. Halere, hasieran bi hilabeteko probaldian egongo da esleipenduna. Zerbitzua euskaraz eman ahal izatea ezinbestekotzat joko da. Informazio gehiago eta dokumentazioa eskuragarri usurbil.net atarian, edota udaletxean.



Tabernaren kudeaketarako eskaerak apirilaren 2ra arte aurkez daitezke.

## Espainiako Txapelketan hiru domina lortu ditu Judo Klubak, junior mailan

**I**ruñako Mendillorri kiroldegian martxoaren 10ean jokatu zen junior mailako Espainiako Txapelketan hiru domina irabazi zituen Judo Klubak. Zilarrezko bana Paula Vicentek (-44 kg) eta Xabier Cazorlak (-73 kg) eta urrezkoa Naroa Sanchezek (-48 kg). Euskal Federazioak hamaika kirolari sailkatzea lortu zuen bertan. Horietatik hiru Usurbil Judo Klubekoak dira. Txapelketa honetako amaiera fasea, apirilaren 5ean eta 6an jokatu da Madrilan, judo klubeko blogetik berri eman dutenez.



Xabi Cazorla, artxiboko irudi batean. Zilarrezko domina irabazi zuen Iruñean.

## Kadete nesken eskubaloi taldea, Euskadiko amaiera sektorean

**H**elburua bete dute. Erronka bigarren postua eskuratzea zen, eta hori lortuta, orain, Euskadiko amaiera sektorerako sailkatu da kadete nesken eskubaloi taldea. Apirilaren 12, 13 eta 14an izango dira partidak baina oraindik txapelketa hau jokatu den lekua erabakitzeko dago. Zehaztuak daude, ordea, nortzuk parte hartuko duten. Gipuzkoako talde bakarra usurbildarra izango da. Beste hirurak bizkaitarrak; Zuazo (Barakaldo), Kukullaga (Etxebarri) eta Errotabarri (Ermua).

### SELEKZIORAKO DEIALDIA

Berriz ere, Usurbil Kirol Elkarteok jokalaria bat, Gipuzkoako Selektioarekin entrenatzera deitu dute. Infantil mutilen taldeko Eneko Iribar Zumeta. Igande honetan, martxoaren 24an, 9:30-11:30 artean Urrietako kiroldegian.

### Futbol partidak Haranen

**Martxoak 23, larunbata**

9:00 Infantil neska F-8.

10:15 Infantil mutilak F-8.

12:00 Jubenilak.

12:30 Kadete areto futbola.

**Martxoak 24, igandea**

11:00 Alebin federatuak.

### Eskubaloi partidak Oiardon

**Martxoak 23, larunbata**

9:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Urrieta 5B.

9:30 Alebin mutilak: Udarregi 6A-La Salle Ber. 6A.

10:30 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil-Elgoibar.

11:30 Infantil neska: Udarregi A Usurbil-Aiala D.

19:00 Senior mutilak, 2. T.: Usurbil K.E.-Saieko.

**Martxoak 24, igandea**

11:30 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Zarautz.

**Martxoak 24, igandea, Oñatiko Kiroldegian**

9:30-11:30 Infantil taldeko Josebe Blazquez.

### Pilota partidak Aginagan

**Martxoak 22, ostirala, 18:45etik aurrera**

**GIPIZKOAKO TXAPELKETAKO FINAL-ERDIAK**

**Eskuz binaka infantilak**

USURBIL (Aitor Aranguren-Jon Zubeldia).

LAZKAO (Ruiz de Laramendi-Zubizarreta).

**UDABERRI TXAPELKETAKO FINALAK**

**Paleta goma gizezkoak 1. maila**

AIA (Aizpuru-Imanol Zumeta).

LOIOLATARRA (Ubeda-Huegun).

**UDABERRI TXAPELKETAKO FINALAK**

**Paleta goma gizezkoak 2. maila**

USURBIL (Xabier Errasti-Aritz Urdanpilleta).

ELGOIBAR (Etxeberria-Bergua).

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, +60 metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 220.000 euro. 636393237

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 216.000. 662 056 899

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m<sup>2</sup> lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela,

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berriua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriurik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Etxe bat alokairuan Atxegalden. Tel. 659 921 235.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera

ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri bategan. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alogagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

## MOTORRA

## salmenta,

## garajeak

30 metroko lokal bat alokatzen da Lasarten, Zumaburuan. Egokia edo-

zer gauzajartzeko. 130 euro hila-betea. Kontratua luzea egitea posible izango da. 687 348 223.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiarrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alogagai Artzabal-len, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m<sup>2</sup>, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA,

HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalaneko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen)

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644


Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrik emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005"


Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)


21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)


Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

 **Zorionak Olaia!** Apirilaren 9an zure urtebetetze eguna da. Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partez.


 **Ongi etorri Oihan!** Zorionak Aroa eta Haritz. Muxu asko familiaren partez.

 **Zorionak Unax** eta muxutxu goxuk, Danel, Luken eta familiaren partez!


 **Zorionak Ion Mikel!** 10 urte, martxoaren 30ean. Muxu potolo bat familikoan partez!

 **Zorionak Mikel!** Ongi pasa zure 5. urtebetetzea. Askok maite zaitugu. Muxu asko!

 **Zorionak Ariana!** 27an 6 urte egingo dituzu. Agiñako lagun eta irakasleen partez.

 **Zorionak Garazi!** Igandean 5 urte bete zenituen!! Zorionak potxoli aita, ama eta Uxuen partetik!!

 **Zorionak Agiñatik, Irene!!** Apirilaren 3an 3 urte! Lagun eta andereinoen partez muxu potolo bat.

 **Zorionak Ani!** Martxoaren 21ean zure lehen urtetxoa beteko duzu. Ondo pasa eta muxu asko!!

## Jaiotzak

**Saleh Khatri Zein**, urtarrilak 8

**Antton Portu Txapategi**, urtarrilak 15

**Enrique Alonso Herrera**, urtarrilak 16

**Liher Oyarzabal Udabe**, otsailak 7

**Oihane Alkorta Fernandez**, otsailak 10

**Julen Rabano Andres**, otsailak 16

**Aiala Arrillaga Apalategi**, otsailak 21

**Manex Zubiaur Bereziartua**, martxoak 3

**Oihan Martin Arruti**, martxoak 11

**Alexander Garcia Tardio**, martxoak 13

## Heriotzak

**Jose Manuel Salsamendi Esquide** 61 urterekin hil zen, martxoaren 14an

**Teresa Alzaga Illarramendi** 90 urterekin hil zen, martxoaren 14an





18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsaldean edo zerbitzari moduan

lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

### Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

### BESTELAKOAK

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziazagarririk). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Txamarra eta jertse bat galdu dira Atxegaldan. Udarregiraigo eta jertse eskailera ondoan. 660779160

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala

txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (lker)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Atez ateko bulegoa .....	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Eusko Tren .....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	LurraldeBus .....	943 000 117
Sexu Aholkularitza Gunea .....	697 919 516	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Anbulategia .....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Oa botika .....	943 376 076
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Iturralde botika .....	943 363 395
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	DYA .....	943 464 622
Haur Eskola .....	943 374 061	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Emergentziak .....	112
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
KZgunea .....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Oiardo Kirolegia .....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Popular Español .....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	BBVA .....	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Gure Elkarte Zahar Egoitza .....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Telefonica .....	1004
Abere-Landare Babeslea .....	943 376 650	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak martxoak 21-martxoak 31

**Osteguna 21** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42 Lasarte

**Ostirala 22** ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

**Larunbata 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Igandea 24** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Astelehena 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Astearte 26** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Asteazkena 27** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Osteguna 28** GIL Kale Nagusia 24 behe Lasarte

**Ostirala 29** GIL Kale Nagusia 24 behe Lasarte

**Larunbata 30** GIL Kale Nagusia 24 behe Lasarte

**Igandea 31** GIL Kale Nagusia 24 behe Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8  
(Antziola). Hernani. 943 336 022  
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
teilatua eta fatxadak  
**943 37 38 79 - 620 80 01 86**  
Kale Nagusia 14, Behea (atzealdea), LASARTE-ORIA

**txirriStra**  
**TABERNA**  
-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Agenda martxoa

## 22 ostirala

- **16:30 Antzerkia** Artzabalen: "Andregai zuriak". Lasarteko antzerki taldea (erdaraz).
- **16:30 Petra antzezlan**a Bihurri ludotekan.
- **20:00 Euskal preso**en eskubideen aldeko elkarretaratzea, Mikel Laboa plazan.
- **22:00 Pin-pon txapelketa** frontoian.

## 23 larunbata

- **Txokotan palaz frontoian**, 11:00etan.
- **Korrika** 15:50ean Aginagan, 16:33ean Kaxkoan.
- **Erromeria frontoian**, 18:00-20:00.

## 24 igandea

- **Truke Eguna Txokoalden**. 11:00etan.
- **Jubilatu Astearen azken eguna**. 12:00etan meza. 14:00etan Bazkaria.
- **Baionara, Korrikaren amaierara**. Autobusez joateko aukera.

## Igande honetan Txokoalden, Udaberriko truke eguna

**D**uela hiru bat urte ospatu zen lehen aldiz Truke Eguna Txokoalden. Geroztik, Usurbilgo gaztetxean ere egin izan da. Igande honetakoa Txokoalden izango dela iragarri dute Trukalariak taldeko kideek. Parte hartzera deitzen dituzte herritarak.

11:00etatik aurrera, truke-plazan bilakatuko da Txokoalde. Eta gero, nahi duenak, bazkarian parte hartu ahal izango du.

Ekimen honen bitartez, truke kultura sustatu nahi dute: "Etxean zenbat gauza ditugu, ongi egon arren erabiltzen ez ditugunak? Zenbat, beste norbaitek gustura hartuko lituzkeenak? Ba galdera hauen erantzunak akaso igandeko Truke Egunean topatuko ditugu".



Trukalariak taldearen ekimenez antolatuta da.

- **Martxoak 24, igandea**  
**11:00** Truke Eguna Txokoalden.  
Ondoren bazkaria.  
Antolatzaileak: Trukalariak taldea.

### Datozenak

#### Egun osoko jaialdia, Herrirak antolatua

Apirilaren 13rako, egun osoko jaialdia antolatzen ari dira Herrirakoak. Besteak beste, eta azken orduko aldaketarik ez bada, bertso saioa izango da, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paiaekin. Sarrerak aldeztatik aurretik 6 eurotan salgai izango dira, Txiribogan eta Aitzagan. Egunean bertan, 8 euroren truke. Ekitaldi honen eta jaialdi honen gainerako hitzorduen berri, apirilaren 12ko NOAUA!-n. Eta lehenago, noaia.com web orrialdean.



#### Ostiral honetan, elkarretaratzea

Aldizkari hau ixterako, 197/2006 doktrina salatzeko mobilizazioak zeuden iragarrita. Bate-tik, asteazken goiz honetarako, 10:00etan ordu laurdeneko elkarretaratzea deitua du LAB sindikatuak udatele aurrean.

Bestalde, hilero azken ostiraletan Herrirak euskal preso politikoen eskubideen alde deitu ohi duen elkarretaratzea aste honetara aurreratu dute. Honenbestez, martxoaren 22 honetan burutuko da aipatu mobilizazioa, betiko ordu eta lekuan; iluntzeko 20:00etatik aurrera, Mikel Laboa plazan.

### Bazkari batekin amaituko da Jubilatua Astea

Astlehenean hasi zen Jubilatuen Astea, DYAKo Amaia Lopezen hitzaldi batekin. Ostiral honetan 16:30etik aurrera Artzabalen, "Andregai zuriak" antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute. Igandean, meza 12:00etan eta 14:00etan bazkaria Aialde Berrin. Otordurako, izena eman behar zen aldeztatik.

### Santixabelak, ekainaren 28tik uztailaren 2ra

Herritar, talde eta eragileek jaietarako egin ditzaketen proposamenen aurrekontuak eta antolatu asmo duten ekitaldiaren inguruko informazioa aurkezteko epe hau izango dute: apirilaren 9ra arte. Jai Batzordea apirilaren 17an bilduko da berriz, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Potxoenean.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**JE** **JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA OROKORRA**  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# PSASUN GIDA 2013



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Entzumeneko aparatuak • Igeriekuko tapoiak neurrira eginda  
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**50€-ko**  
**BALEA**

BETAURREKO  
PROGRESIBOETAN  
(HOYA)



**Ibaiondo**

**Fisioterapia**  
**Osteopatia**  
**Errehabilitazioa**  
**Masajeak**

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

**Öinutsik**

podologia zentroa

Puntapax 6B, behea ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopaticoak

Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBE 943 36 33 95

[www.iturraldebatika.com](http://www.iturraldebatika.com)

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Gida honetan azaltzeko: 943 36 03 21 [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

# TXOTX !!!



**OTSUA-ENEA**  
SAGARDOTEGIA

**943 55 68 94**

Osinaga bailara, HERNANI



**URDAIRAT**

Sagardotegia  
astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



**LARRE-GAIN**  
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 5era  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserrria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



**SAIZAR**  
Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 · **USURBIL** · Tel. **943 37 39 95**  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



**SAGARDOTEGIA**  
aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
TXOTXETIK!

Tfno-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
[info@aginagasagardotegia.com](mailto:info@aginagasagardotegia.com)  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

%100 bertako saagarra

**AIALDE  
BERRI**

Tel: **943 365 031**

Santuenea